

k u l t u r l e i h o a

ezagutzen al
duzu
Donostia?

Patxillardegi

Amara eta Egiatik Hernani aldera abiatu-rik, Loiola pasa eta auzoaren bukaeran bide ertzean agertzen zaigu. Patxillardegi baserri zaharra, gaur gainera aroztegi artisau bihurtua.

Zalantzarik gabe Donostiako etxe guztien aitonen aitona dugu hau! Hain zuzen ere XVI. mendearen hasieran eraikia da; esaidazue, baden Donostiako milaka eraikuntzen artean halako beste etxe zaharrik? Ziuraski ez! Etxe honen zurajeak edo egiturak tolare bat osatzen du. Erakuntza hau etxe bizitza, baserri eta tolare izateko eraikia izan zen. Euskal Herriko tolarerik zaharrenetakoak Donostian

ditugu! Patxillardegik garai batean bazuen bere portua Urumea ibaian; gaur egun desagertu da. Etxea eraikuntzez eta errepidez inguratua dago eta bera ere desagertzeko zorian. Ez ote dugu defendituko gure ondarea, gure historiako altxor baliotsuenak?



JOSU TELLABIDE

Roxall

Donostiako kantutegia



J.I. ANSORENAK proposatua

Ilunabarra

Eguzkia hasten da
jetxitzen, jetxitzen,
dizdizari ederra
zaiola gutxitzen.

Diamantezko printzak
zaizkanean galtzen,
urrezko bola baten
ituraz da jartzen.
Eta geldi-geldi da
itsasoera sartzen.

Jiratzen dan denboran
itsaspe haundira,
paletako kolore

guziak han dira.
Hain pintura politikak
goien jartzen dira,
ustetzen da zerua
hauspez dala jira.
Ezin asper liteke
berari begira.

Abesti hau oraindik ere oso ezaguna da Donostian, eta koruen giroan Euskal Herri osoan. Ilitzak Pepe Artola ospetsuaren aitak jarri zituen, Ramon Artolak (1831 - 1906).

Musika eder eta sarkorra du. Baina egilea zein den jakitea, zaila da. Paper gehienetan Raimundo Sarriegirena dela azaltzen da.

50 urtetik gora donostiarren zerbitzura

Winterthur Aseguru Elkarte Suizarra
Donostiako Delegazioa

Bergara 20, Ezk..ko eskilara, 1. 20005 Donostia Tfnoa: 43 02 28 Faxa: 42 88 78